


Xabi Rekaldek 9 txapel lortu ebazan 2024an

Txumuluxueta klubeko 21 urteko pelotari promesa dimoztarra ASPEgaz entrenetan hasi da. 2024an bederatzi txapel jantzi ebazan Rekaldek, tartean, Euskal Herriko Lau Eta Erdiko Eliteko txapela. Profesionalakaz entrenetatik profesionaletan jokatzera saltoa dagoala baina pozik hartuko leukela aukera hori dino. Danel eta Lander Elezkano edo Ekhi Ziarrusta moduko figurei jarraituta hasi zala pelotan adierazo deutso BEGITURI. **11. orrialdea**



Iraia Garciak sortutako GBBR taldeek 10 urte

Igorre eta Lemoako Gu Be Bai Runners (GBBR) taldeek 10 urte beteko ditue aurten eta egitasmoaren buru dan Iraia Garcia alkarrizketatu dau BEGITUK.

Andrak galapan egiteko egitasmo hau 2014an Zornotzan sortu eban Garciak. Ostein, Igorren, Lemoan eta lurretan martxan ipini eta par-taide ziran andren entrenatzailea izan zan, Arratiako taldeen kasuan, 2023ra arte. Hamar urte honeetan 100 andra baino gehiagok hartu dabe parte talderen baten.

Andren artean kirola egiteari bultzadea emoteaz gainera, aisialdian euskeraz egiteari be emon deutso bultzadea Iraia Garciairen GBBR egitasmoak. **8. eta 9. orrialdeak**



Arratia, Ubide eta Zeberio ibilbideak



Alkartee antolatuten dabezan ibilaldiak, mendi martxa eta lasterketen ibilbideak dagoz bertan. Hamaika dira guztira; herri bakoiteko bat eta Arratia zeharkatzen dauan ibilbilbidea, hamaikagarrena. Ibilbide bako-txak QR bat dauka, ibilbidea eskuko telefonoan eroan ahal izateko.

Gehigarrian mendi parajerik ederrenak eta luzeera eta zailtasun desbardineta ibilbideak jasoten dira, gura dauanak gura dauanean egiteko. Aurrerago, beste ibilbide batzuk be jakitera emoteko asmoa dago. **Gehigarri berezia**

IGORRE

Ander Gorospe eta Juan Mari Zurinaga omendu dabez

Igorreko San Kristobal auzokoek Igorreko Ziklo-kros eta Arratiako Ziklista Elkarteko Ander Gorospe eta Juan Mari Zurinaga fundatzaileei omenal-dia egin eta ziklo-krosaren 25. urteurrena gogoratzen dauan monolitoa plazan ipini eben. **5. orrialdea**

BEDIA/ZEBERIO

Zeberio eta Bedian parke eolikoa egiteko proiektua dago

Feroskana parke eolikoa izenagaz, Zeberioko lurretan, 4,7 MWko bost aerosorgailu eta Bediako lurretan bat ipintea aurreikusten dau proiektuak. Aurtengo aprila-maiatza aldera, proiektua jente-aurrean aurkezteko epea zabalduko da. **7. orrialdea**

IGORRE

Igorre Kantuan ekimena martxan da

Gogoz heldu deutso barriro Igorrek tabernetako kantaldiari. Ur-tailaren 10ean egin eban Igorre Kantuan ekimenak lehenengo kantaldia eta 90 bat lagun batu ebazan.

Ekimena oin urte batzuk Euske-ra Planetik sortutako kantu-potea-ren jarraipena da. Talde horretan eta Arratia Kantuz-en ibilitakoek faltan botaten eben ekimena eta martxan ipini ziran barriro, urtean lau kantaldi egiteko asmoagaz; hau da hiruhilebeterik behin. Aplikazio batera igongo dabe eguna, ordua, ibilbidea eta kan-tuak, gura dauana batu daiten. Izan be, ekimen zabala da, eus-keraz baina euskerea ikasten da-bizanentzat be egokia. **7. orrialdea**

EKIN
LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57
ekin@ekinsl.eus
Igorre (Bizkaia)

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LX). Kale berbakunea sustatu guran

GABON AJEA

- Egun on, hi! Zelan **gabizek** ba?
- Aren putzituta, gizona!
- Eta hori?
- Gabonetan antzarren moduan jaten ibili **nok** eta!
- Kar, kar, kar!
- Gaur bertan emon behar **joat** izena gimnasioan.
- Arinika hasi **behakok!**
- Etxakiat** baina zeozer egin beharko **joat!**
- Baina hilebete gimnasioan ibilita **eztok** nahikoa, e? Gero zezeilatik aurrera ez **hai** desapuntau gero!
- Konstantea izan beharko **joat**, bai!
- Bueno, hi egongo **gozak!**

ERETXIA

Adimen Artifiziala Sortzaile Lanbide Heziketan

Urteak dira jada automatizazio munduan Adimen Artifiziala erabilten dogula, baina gogoan daukat joan dan ikasturte hasikeran ChatGPTgaz izan neban lehen kontaktua. Edonok eskakizun bat egin eta segundo gitxitan, lan idatzi, kalkulu konpleju edota robot programa bat idatzi eikian aplikazio barria ezetu nebanean. Ordura arte lanean programau nebazan makina guztiek "hizkuntza aurrerratu" konpleju baten jakintza behar eben, eta ezelango akats barik idatzitako kodeak izan behar ziran. Aurrean neukan harek, euskeraz ulertzeaz gainera, nire ohiko akats ortografikoak barkatzen eustazan. Honeek zuzendu eta hobekuntzak eskaintzen ebazan gainera! Lilura eta bildurra sentidu neban neurri berean. Ze etorkizun espero genduan eskola eta lanleketan holango erreminta bat demokratizau eta edonok erabili baeikean?

Lotsa puntu bategaz gogoratzen dodaz lehen hilebete horreek. Ikasleei ezkutupean manteniduten saiatzen ibili ginan miragarria irudian erreminta ha. Bildur ginan ordurarte antolatutako irakaskuntza "klasikoa", urte askoz pilatutako ariketa mordo, lan idatzi eta azterketak... ea pikutara joango ziran. Ikasleek ChatGPT ezetutakoan, irakasleak eskatutako ariketak zuzenean eskatu eta segundo gitxitan irakasleen proposamenak baino hobeak ziran erantzunak izango ebezan. Hau desastrea!

Agian berandu hasi ginan, baina esango neuke eskolan urte bi inguru daroagula ikasleek Adimen Artifizial Sortzailea erabilten hasi ziranetik eta genduzan zalantza gitxi batzuk badoaz apurka-apurka argitzen.

Katastrofea ez da horren handia



ANDER LASA

Automatizazio eta Robotika irakaslea Zulaibar Lanbide Ikastegian

izan (momentuz). Erro karratuak azkarrago egiteko, kalkulagailua erabilten dodan horreetakoa naz eta apunteak beti kopiatzen neutsazan aurrean jesartzen zan tipo azkar eta apur bat arraro horri. Ba... gaur egun klasekide barria daukagu mahai artean eta hau ezetu ahala, irakasleok ikasle barri honegaz albarbitza kudeatu beharra daukagu.

Ez dot orokortu gura, baina bildur geuntsan AA horrek, irakasleoi laguntza gehiago dakartzku, oztopoak baino. Gaur egun, apunteak, ariketak edo aurkezpenak prestatzea askoz azkarragoa da eta denpora aurrezte honek, erronka erakargarri eta egunera-tuagoak prestatzea ahalbidetzen deusku. Irabazitako denporeagaz ikasleak hurbiltasunean egoteko tarte gehiago lortzea da oin helburua.

Bildur ginan be ikasleen arteko AAren erabilereak alperkeria sustatuko eban. Informazio tekniko horren erraz lortzeak, hau irakurri edo barneratu barik, ontzat emongo ebanaren bildur. Baina horretan ez dogu alde handirik nabaritu. Gitxienekoa egin gura dauanak, berean jarraituko dau, baina espero ez genduan zerbaist be gertatu da. Gai desbardineta sakontzeko gogoz dagozan ikasle edo irakasleak, txat zuzena daukie oin klaseko tipo azkar eta "arraro" horregaz. Euren galderei erantzuten nekatzen ez dana. Sakontasun amaibako eta erabili erraza dan bidea daukie oin eskuragarri edozelango gaien gaineko interesa asetzeko.

Ha-ta guztiz be; gaur egun AAK akatsak egiten ditu, eta nahikotxo gainera. Menperatzen dogun gai baten gainean egiten dogunean berba, dibertigarria da zelan akatsak onartzea kostetan jakon eta zuzenketak egiten deusaguzanean erdizka zelan onartzen dituan ikustea. Honek, Adimen Artifizialaren egia bakarra beti "kakotxen" artean ipintera behartzen gaitu. Akats honeen erroa ez dogu inoz jakingo, baina adituak ez garan gaitan, akatsak egiteko aukera handia dagoala pentsatzera behartzen gaitu.

Argi dago AA gure artean gertatzeko etorri dala, beraz eskola eta enpresak olatu barri honetara egokitzera behartuta gagoz, uhinaren indarra gure alde ipini eta gu itotetik gura ez badogu. Aplikazio honeen trikimailu, arrisku eta atzetik dituan interesak ondo ezetu behar doguz, modu egokienean erabili eta irakatsi daiguzan.



LUMATUTEN



AMAIA ESPINOSA

Laurden bat,
bi, hiru...

Mende laurdena! ausikada ederra denporeari egingdakoa! Suspirioagaz batera, burura etorri jat Sylvia Plathek, joan dan mendeko erdialdean zendu zan olerkari feministeak esaten ebana, "inoz ezin izango naz izan gura dodazan persona guztiak, ezta bizi gura dodazan bizitza guztiak bizi be" baina pentsetan dot, laurden batzuk beteta daukagunok halanda guztiz be, izan dogula persona batzuk izateko eta bizitzaren bat baino gehiago biziteko aukerea. Helburua, biziten, sentiduten, ikasten eta egiten jarraituteko grinari ekitean dogu.

Datuek dinoenez, Euskadiko gizeatearen %23a, 65 urtetik gorako moltsoan dago, eta igoten. Esateko modu zuzenean, gizartean gero eta persona nagusi gehiago gagoz. Nagusiak, ez hiru zein laugarren adinean. Gu geu.

Gaur egun izena daukien belaualdietan, Zetak edo *Millennialak* esaterako, geureari sandwich edo zaintzaren belaualdia esaten deustsie, eta hori, guraso eta seme-ala-

ben artean harrapatunik egoteagaitik ei dator. Baina gu, hori baino askoz gehiago be bagara. Gu egokitzen jakin dogun belaualdia gara, gu etxeko sutean irratia entzutetik, Alexagaz alkamizketa surrealistik burutzeko kapaz izan garenok gara. Guri, egurrezko beroak eukan eskoletan eta lerrotik urten barik luma eta tintaz idazten erakutsi euskuen arren, whatsapppeko idazmen *sui generis* atzamarra erabiliz ederto kontroletea lortu dogunak gara. Guk freskeratik izozkailura iragan behar izan dogu eta TBOakaz adimena lantzetik, adimen artifizialeko garaira heldu gara. Ikasi dogu analogikotik digitalera pasetan. Eta gu, aurrekariak be izan ginan, andrak lehenengo bikini eta minifaldak erabilten eta mutilak, ule-adats eta "txupak" modan ipintzen, baina modetatik aparte, geurea konpromiso belaualdia be bada: guri tokau jakun momentu ilunetan bardintasun eta bidezko gizarte baten alde aldamikatzea eta garai bariei bidea zabaltzea. Guri mundu batetik bestera pasetea tokau jaku, baina egoera horreen guztien gainetik, hemen jarraitzen dogu, gaur egungo bizilagunak izaten.

Guri danon airea amastu eta gizartearen hotzak eta beroak geureak egitea gustetan jaku. Guk gaurko arazo eta bildurrei aurre egiten segiduko dogu. Gu beharretan beharretan eta jaietan disfrutetan izango gaituzue. Eta hasi barri dan 2025 honetan, gure Herria gero eta bardinzaleagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa izan daiten, laurdendunak eta laurdenbakoak alkarrengandik ikasten eta alkarreiri irakasten jarraitzea dogu desioa. Urte barri on danoi.

ZERTZEAN

IRADI BARRENETXEA
AKESOLO

1

Bi mila eta hogeita laua a zer nolako urtea eskuin muturra indarra hartuz eta Trump presidentea genozidio bat Palestinan suntsituz herri askea ba bai tristeki hau da gaur egun bizi dugun gizartea.

2

Urte zitala izan da eta etzazue egin duda guztia izan dira dirua, iskanbilak eta guda urte gordin hau bukatzea zen buruan nuen helmuga eta behingoan bi mila eta hogeita bosta heldu da.

3

Ta helburuen zerranda heltzen zaigu urtea hastean batzuk zumbara ta beste batzuk mendira bitan astean zenbat denbora pasatzen dugun promesa faltsu artean gero guztia ahaztu ohi zaigu lehen astea pasatzean.

4

Nahiz batzuk hasi duten urtea gogotsu ta oso pozik etxe batzutan hutsune handi bat aurkitzen da oraindik gutako asko ziega zulotan baitaude giltzapeturik zuek gurekin egon ezean ez da ezer ospatzerik.

5

Guk borrokatzen segiko dugu ta goiko hoientzat kalte kolektiboan ta saretuta zerbait egin genezake denok etxean egon gaitezen ta izan gaitezen aske ez dugu etsiko guztiok zuen etxeetan egon arte.

6

Batzuen falta dugu oraindik baina bueno dena dela ea aurretik dugun urtea den goxoa ta epela bertso sorta hau bukatu nahiko nuke esanez horrela urte eder bat opa dizuet gozatu dezazuela.

BEGI TXINDORRA

Beharlekuan leihotik ikusten danaren garrantzia, lar gitxi egiten da berba. Emoten dau etxe bat erosterakoan eta oporretan bakarrik dirala leihoak inportanteak; ikasteko eta lan egiteko orduan aitatu be ez dira egiten.

Ni txikitan eskolan beti ipinten nintzan leihoaren ondoan eta lan barri baten hasten nintzan bakotxean, lanlekuan lehenengotik bilatzen nebana leihoa eta handik ikusten zana izaten zan. Begiak ordenagailutik kendu eta mendiei, zugatzei, zeruari begiratzeak pentsetan lagundu izan deusta beti.

Begi txindorra jarraitzen dozuena -inork jarraitzen badau- behin baino gehiagotan ikusita daukazue gure leihotik ikusten dana. Ba, hainbeste aldiz ikusi dozuena zugatz horretan, mika bikote batek habia egin dau eta hor ibiltzen dira joan-etorrian txoriok. Habiak, pribadutasuna emoten deutse eta ez dakit arrautzak ete dagozan bertan ala honezkerok jaio ete diran txitak.

Mendiak, zugatzak, zerua eta habia begiratzeko etenalditxo amaitu da. Burua jiratu, ordenagailuari begiratu eta hor dagoz barri munduko min guztiak: Gazako genozidioa, Ukraina eta Sudango gerrak, Afganistango andren egoerea, Trump, ultraeskoiaren gorakada... Arratia, Ubide eta Zeberio be munduan dagoz eta hemengook ez gagoz min horreetatik salbu. Ha-ta guzti be, burua jiratu eta gure leihotatik gizaki ez diran izaki asko ikusi daikeguz bizitzari eusten.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgela Zerbitzu 901
R.P.S. 31/06

ARRATIA

Bertan praktikak egiteko ikasle bila dabil Errota

Enpresen administrazio eta zuzendaritza edo Ekonomia graduako ikasleak dira behar diranak.

Erredakzioa

Ikasleek Errotaren plan estrategikoaren prozesuan parte hartuko dabe eta lan hizkuntza euskera izango da. Interesa daukienek info@erota.eus helbidera bialdu behar dabe euren curriculumak.

Deialdi honen helburua Arratiako gazteentzat Errotan eta Arratiako enpresetan praktikak eta lan egiteko aukerak sortzea da. Errotan praktikak egiten dabezan ikasleek plan estrategikoaren prozesuan parte hartzeaz gainera, proiektu eta dirulaguntzen kudeaketa eta komunikazio arloko lanak egingo dabez.

Plan Estrategikoa

Oin arte egindako lana eta en-

presakaz sortutako hartu-emonak kontuan hartuta eta bere jarduna eragingarriagoa izateko, plan estrategikoa egingo dau Errotak. 2025eko lehen 7 hilebeteetan izango da lehenengo fasea. "Lehenengo fasea izango da Errota eta Arratiako enpresak, barne antolaketa bat. Lehenengo fase hau urtailaren 15ean hasten da eta 15etik 21era bitartean egongo dira alkarrizketak, patronatoa osotuten daben kideakaz eta Arratiako Udalakaz eta hortik urtetan diran emaitzakaz hasiko gara sorkuntza prozesu baten" azaldu deutso BEGITURI Kizkitza Aurrekoetxea Errota Fundazinoako koordinatzaileak.

Bigarren fasean arlo soziala landuko litzateke.



IGORRE

Ilbanduz proiektua Igorrera egokitze lan saioak egingo ditu Igorreko EH Bilduk

Erredakzioa

Oin dala urte bi Igorreko EH Bilduk "Ilbanduz indartu: Igorre 2030" herri proiektua definituteko prozesua eroan eban aurrera. Proiektua eguneratzeko, EH Bilduk lan saioak egingo ditu urtailaren 25ean eta zezeilaren 22an, 10:00etan.

Eguneratu beharreko proiektuak 5 erronka estrategiko eta 21 neurri ditu. "Proiektuak eta prozesuak, bizitza bera lez, dinamikoak dira, etenbako eguneraketea eta doikuntzea behar dabe, eta Igorreko EH Bilduk bere komunikazio deagaz batera egin gura deutse aurre euri" azaldu dabe Igorreko EH Bildukoek prensa ohar batez.



IGORRE

Ziklo-krosaren monolitoa plazan ipini eta Ander Gorospe eta Juan Mari Zurinagari omenaldia egin eutseen San Kristobaleko auzotarrek

Igorreko San Kristobal auzoa da Igorreko Ziklo-kros eta Arratiako Ziklista Elkarteko sorlekua.

Erredakzioa

Ander Gorospe eta Juan Mari Zurinaga fundatzaileek ziklo-kros zaleen artean Igorre munduan kokatu dauan proba 43 urtez antolatu eben. Hori dala-ta, auzotarren esker ona adierazoteko, 2024ko abenduaren 21ean, ziklo-krosaren monolitoa leku hobe batera aldatu eta bertan, plaka bat ipini zan "Ander Gorospe, Juan Mari Zurinaga, eskerrik asko auzo honeri emondakoagatik!" testuagaz.

Monolitoa plazako txokoaren ostean egoan. Gorospek harriz egin eban ziklo-krosaren 25. urteurrenean. "Auzotarrak aspaldidanik jaubetuta egon dira lekua ez zala egokiena, lekuak ez ebalako ezer esaten eta ikusi be ez zalako egiten. Hori dala-ta, ebatzi eben ordua zala toketan jakon garrantzia emoteko eta kokapen hobe batera aldatuteko, plazara

hain zuzen be" azaldu deutse BEGITURI San Kristobaleko auzokoek. Leku aldaketaren inaugurazino ekitaldian Ander Gorosperi eta Juan Mari Zurinagari omenaldia egin eutseen. "Auzoan, betidanik, erreferenteak, hauspoa izan dira, gaur egun be dira eta izango dira.

Guztiontzak auzolana eta auzo antolakuntzearen eredu" eta euren egindako guztia aitatutea zerrenda luzea izango litzatekela dinoe San Kristobalgoek. Horregaitik, auzoaren memorian betiko egoteko gehitu jakon plaka bat monolitoari.



AREATZA

Maiatzaren 30 eta 31n izango da aurtengo Areatza Musik & Beer jaialdia

Erredakzioa

Areatza Musik & Beer nazinoarteko musika eta garagardao jaialdia ospatuko da maiatzean Areatzako kaleetan, zortzigarren edizinoan izango da aurtengoa. Antolakuntzeak jakinarazo dauanez, egun biko jaialdia izango da, maiatzaren 30ean eta 31n ospatuko dana, hain zuzen be. BEGITURI azaldu deutsienez, laster emongo dabez jakitera jaialdian joko dabezan talde batzuk. 2025ean jaialdiak "egun bat gehiago hartu leikela uste dogu eta horretarako beharrez gabiz" adierazo dabe. Sorpresak be izango dirala iragarri dabe.

Areatza Musik and Beer musikaz harago doan jaialdia da eta zutabe garrantzitsua da garagardao artisaua, eta aurten be holan izango da. 2024an Basque Beer alkarreak parte hartu eban lehenengoz urteak daroazan Bas-



queland Brewing-egaz batera. Momentuz, 22 dira Euskal Garagardoaren Elkartea osotzen daben markak, "euren artean dago BBP garagardaoa, gure jaialdiko parte garrantzitsua dana".

Gastronomiak be bere gune eta programazino propioa izango dau. Erreka ondoko Kallartean gunean *foodtruck*-ak eta beste postu batzuk egongo dira euren produktu bereziakaz.

Argazkia: Jose Atxa.

IGORRE

Indarkeria matxisteagaz amaituteko neurri eraginkorrek eskatu ebazan Arratiako Mugimendu Feministak elkarretaratzean



Erredakzioa

Urtilaren 7an, Arratiako Mugimendu Feministak deituta, elkarretaratzea egin zan Igorren, Barakaldoko hilketa matxistea salatu eta, hildakoaren familia eta lagunei alkartasuna adierazo eta instituzinoei Euskal Herrian 2003tik hona 115etik gora andra hil dituan indarkeriagaz amaituteko neurri eraginkorrek eskatuteko.

Atzen hilketea Barakaldon gertatu zan. 84 urteko Luciaren semea atxilotuta dago, ama hil ebalakoan. Familia barruko indarkeria matxista kasu bat izan da hau, sano larria

edadeko andren zaugarritasuna dala-ta. "Aliziaz ez ei eban semea salatu, bai oster auzokideek, anaiak, emazte ohiak... ez ete zan nahikoa arriskurik?" galdetu eben komunikaduan. "Ze justizia jagoku androi? Hil eta gero doluminak? Instituzinoen elkarretaratze deiak? Emakunderen adierazpen sutsuak? Instituzinoei, segurtasun indarrei, aparatu judizialari ez ete jagokie neurri zuzen eta eraginkorrek ebatzi, bultzatu eta bete arazotea?"

Feministen eretxian hilketa honen, barriro be, agirian itxi dauz sistemeak dituan gabeziak andrazkoen bizitzak babesteko.

ARTEA

Animal Jane proiektuaren aurkezpen kontzertua egongo da Artean

Erredakzioa

Urtilaren 19an, domekan, 13:30ean, Adri Garcia Gasteizko kantautoreak *Animal Jane* EParen aurkezpen kontzertua emongo dau Herriko Bentan.

Animal Jane proiektuan "urteetan zehar, bakarka zein izen eta banda desbardinetan egin dodazan kantuak dagoz. EPak kantu horreetako batzuk batzean ditu". Horreezaz gainera, zuzenekoan, rock, blues, soul, folk eta abarrek kantu ezagunen bersinoak jotzen ditu abeslariak.



ARRATIA

Berbalagun talde barriak sortuteko kanpaina abiatu dau AEK-k

Erredakzioa

Hilarren 23rako, Lemoan, *Pasta* tailerra antolatu dau AEKren Arratiako Berbalagun egitasmoak. Tailerra debalde da eta izen-emotea zabalik dago arratia_berba@aek.eus helbidean.

Ikastaroan Txaramelako lagunek pasta egiten erakutsiko deutsee Berbalagun taldekoei. Patea lortzeako eraldaketa prozesuaren atal bakotxa azalduko deutsee.

Tailerrak, Berbalagun taldeak antolatutako ekintza guztien modura, euskera praktiketea dauka helburu, euskaldun eta euskera ikasten dabilenen artean euskeraz egiteko ohitura zabalduko.

Talde barriak

Urtailean Arratian Berbalagun talde barriak sortu gura ditu AEK-k. Taldeko partaideek aukeratu dabe eguna, ordua eta zer egiteko batuko diran: paseau, kirola egin, mendira joan, kafea hartu... Parte hartzea debalde da eta abantaila ugari dagoz, deskontuak, opariak eta Arratia mailan antolatuten diran ekintzetan parte hartzea, besteak beste. Izena emanizena.praktika-berbalagun.com

tu.eus webgunean, 662 199 033 whatsappean, arratia_berba@aek.

eus helbidean edo Igorreko Kubulu euskaltegian emon daiteke.



IGORRE

Berbaldia, tailerra eta kontzertua antolatu dauz Axular Herriko Tabernak

Erredakzioa

Urtailean kultura egitarau oparoa dakarre Igorreko Axular Herriko Tabernan eta bigarren hamabostaldi honetarako, geopolitikearen gaineko berbaldia, *Puntu* tailerra eta Bihotz taldearen kontzertua antolatu dabe.

Urtilaren 21ean, 19:00etan izango da *Aldaketa politiko eta geopolitikoak* izeneko berbaldia, Geopolitikaz Ikerketa Taldeko kide baten eskutik eta hizlariak, momentu honetako geopolitikearen egoera aztertuko dau. Geopolitikaz Ikerketa Taldea 2019an sortu zan Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Politika eta Administrazio Zientzia sailean. Bere ikergai nagusiak dira nazioarteko politikea, nazioarteko harremanak, eremuko azterlanak eta geopolitikea. Helburuen artean dagoz ikerketa lan akademikoak garatzea, zientzia dibulgazioa egitea eta koiuntura analisisa burutzea.



Hilarren 23an eta 30ean, eguenean, izango da puntu tailerra. Saio biak, 18:00etan izango dira. "Asmoa bufanda itxi bat egitea da. Puntua egiten idearik ez daukagun batzuk egongo gara, baita dakienak be" azaldu deutsee BEGIRURI antolakuntzatik.

Kontzertuei jagokienean, Bihotz taldea eta DJ Tibe, hilarren 24an, barikuan 21:00etatik aurrera izango dira emonaldia. Elorrioko Bihotz taldeak musika

elektronikoa egiten dau.

Kultur alkartea

2024-2025 ikasturtean, programazioa indartutea ebatzi eben Axular kultur alkarteko kideek. "Kultur alkarteari indarra emotea, beste alkarte batzukaz be hartu-emon handituteko. Herrikoia danok erabilteko espazioa izatea gura dogu, norberaren proiektuak aurrera eroteko" di-noe alkartekoek.

IGORRE

Igorre Kantuan ekimenak barriro hasi dauz kantaldiak

Urtailaren 10ean, 90 lagun inguru ibili ziran kantuan Igorreko hainbat tabernatik. Izan be, Igorre Kantuan ekimena martxan da barriro. Asmoa, urtean lautan urtetea da, ibilbidea aldatuz, Igorreko taberna guztietatik ibili ahal izateko. Helburua, euskera kalean indartzea, euskeraz ondo pasetea eta jentea euskerara erakartea da.

Erredakzioa

Aurretik be egon zan holako ekimen bat, Euskera Planetik sortua, Kantu-pote izeneko. "Lauzpa-bost urtez ibili ginan kantetan eta gero desagertu egin zan. Gero Arratia Kantuz be sortu zan eta han be ibili ginan. Azkenean pandemia zala eta ez zala desagertu egin zan ekimena" azaldu deusie BEGITURI Igorre Kantuan taldekoek. Kantu-potean eta Arratia Kantuz-en ibiltan ziran batzuk, hutsune hori sumatuta, batu egin ziran igaz kantaldiak berreskuratze-ko eta Igorre Kantuan sortu zan.

Batzar zabal baten ebatzi ebezan datak eta ibilbidea. Nahiz eta aurreko taldeek hilean behin egiten eben kantaldia, hiru hilebeterik behin egitea ebatzi zan, "jentea agobiau ez daiten, ze danok daukaguz gauza asko, konpromiso asko...".

Kantari aplikazioa

Saio baxotxean kantauko dabezan kantauak Kantari izeneko

aplikazioan ipinten dabez, gura dauanak alde aurretik jakiteko eta momentuan bertan be kantua berbak irakurri ahal izateko. "Lehenengoak geuk ipini doguz, baina momentuan bertan edozeinek bota ahal dau idea bat". Ez dabe ensaiarik egiten, momentuan jentearen parte hartzea bultzatzeko. "Ez deusagu gura formatu formalik emon, bes-tela jentea ez da sartuko. Gozatzeko espazio bat da" dinoe.

Ha-ta guzti be, gidari bi dagoz, noz sartu adierazo eta tonua emoteko. Lehenengo saioan musikariak be egon ziran eta kantau batzuk *a capella* eta beste batzuk musikeagaz lagunduta kantau ebezan.

Igorre Kantuan taldekoek "jentea erakarri gura dogu. Euskeraz ez dakiena be bai, baita ikasten dabilena be. Eurei be esan gura deutsegu, etorri gugana, ondo pasauko dozu euskeraz kantetan eta. Euskeraz ondo pasetako ekimendua da, danontzat, zabal-zabala".



BEDIA/ZEBERIO

Ferosca Wind (Delta Power) enpreseak Zeberioko Mandoian aerosorgailu parke bat ipini gura dau

Feroskana parke eolikoa izenagaz, Zeberioko lurretan, 4,7 MWko bost aerosorgailu eta Bediako lurretan bat ipintea aurreikusten dau proiektuak. BEGITUREN eremuan inpaktu handiena eukiko leuken proiektua da, baina ez bakarra; izan be, Plaury Energyk Kastillo parke eolikoaren proiektua dauka, Ubide, Legutio eta Otxandioko lurretan.

Erredakzioa

Geuria Hego Urubeko komunikabideak informautakoaren arabera, Ferosca Wind enpreseak, 27 MWko sei aerosorgailuz osotutako parke eolikoa ipini gura dau Mandoia mendilerroan: bost Zeberioko aldean eta bat Bedian. 2023an, Ferosca Wind-ek parke eolikoa sortu ahal izateko lehen eskaria egin eban eta 2024ko urtailan eskumen izapidearen ebazpena egin eben. 2024ko garagarrilean, enpreseak Aurre-tiazko Administrazio Baimenaren (LMA) eta Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenaren (HIA) eskaerea aurkeztu eban Industriako Bizkaiko Lurralde Bulegoan.

Aurtengo aprila-maiatza aldera, proiektua jente-aurrean aurkezteko epea zabalduko dala be informau dau Geuriak, 30 eguneko, informazioa publikoa izan daiten eta enpresa eskatzaileak aurkeztutako ingurumen inpaktuaren azterlanaren gehigarria aztertu ahal izateko. Zementian ingurumen inpaktuaren adierazpenari buruzko ebazpena egingo dabe.

Kastillo parke eolikoa

Ubide, Otxandio eta Legutio lurretan aurreikusita dagoan Kastillo parke eolikoaren proiektuak 85x25 metroko oinarria daukien hormigoizko plataformak eta 200 metroko lau aerosorgailu eregitua

ekarriko leuke. Ubideko lurretan, 120 metroko altuerako torre meteorologiko bat aurreikusten da. Aerosorgailuak Ubideko mugan baina Legutio lurretan egongo litzatekez.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak 2024ko zezeilaren 23an argitaratuta, martxan ipini ziran Kastillo Parke Eolikoa eregitiko administrazio izapideak. Zentral eolikoak 22,5 MWeko potentziako bost aerosorgailu izango leukez.

Proiektu hau geldituteko asmoagaz, Kastillo Bizirik Koordinadorea sortu zan "askotariko subjektu soziopolitiko ez osotuta". Euren esanetan, holango proiektuak "transizino energetikoaren legeak bultzatutako proiektuak

dira eta Europako Next Generation funtsakaz lotura zuzena daukie. Ondorioz, enpresek energia barriztagarrietan kapitala sortzean jarraitze bitarteko bat ikusten dabe eta ez klima larrialdiari aurre egiteko konponbide bat".

Proiektu honeen inpaktua, parke eolikoak egiteko lanetan hasen dira. Kastillo Parke Eolikoaren "azpiegitura 164.400 metro koadroko lur eremu publikoan izango dau eragina eta 250.000 metro kuboko lur mobimentua suposatuko dau; hau da, zortzi futbol-zelai eta 27.000 kamioi baino gehiagoko lur erauzketea".

Ubideko Udalak eta partikularrek alegazioak aurkeztu ebezan proiektuaren kontra eta alegazioen erantzunaren zain dagoz.



GU BE BAI RUNNERS. 10 URTE

"Ez da agur bat izan, laster arte bat baino"

Hamar urte beteten dira aurten, Igorren eta Lemoan andrak alkarregaz galapan egiteko GBBR taldeak sortu zirala. Iraia Garciak, mundu mailan be lorpenak izan dituan Zornotzako atleteak, ipini ebazan martxan taldeok Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak eskatuta eta Igorre eta Lemoako Udalen laguntzeagaz. Holan, 2023ra arte, taldeok nazinoarteko mailako atleta bat izan eben gidari eta irakasle.

Erredakzioa

Taldeak mantendutak dira. Igorren martitzen eta eguenetan, 18:30ean batzean dira kiroldegi aurrean, galapaldi bat egiteko, lagunen artean, andren artean, euskeraz eta aire librean eta doban egiten dan kirol hau, bakotzak bere mailan praktikatuko. Herri lasterketan parte hartzeako be entrenetan dabe. Baita Lemoan be.

Baina, kirola baino harago doa GBBR egitasmoa, eta sorodidada, osasuna eta euskerea be bultzatzen dauz. Lemoan, Berbalagun taldea be izan zan.

2023an, egoera personalagaitik itxi egin behar izan ebazan taldeak Iraia Garciak. Ez dakiala noz, baina bueltetako gogoia adierazo deutso BEGITURI.

Korrika talde asko dagoz leku guztietan, baina gitxik daukie mundu mailan be dominak lortutako atleta bat entrentzaile. Zein izan da zure ibilbidea atletismoan eta zeintzuk izan dira lorpen aitagarrienak?

Kirol askotan ibilitako umea izan naz: taekwondo, igeriketea, balleta, gimnasia erritmikoa, saskibaloia eta atletismoa. Eta 9 urtegeaz atletismoa bakarrik egiten hasi nintzan. 9 eta 15 urte bitartean, eskola kirola zan baina 15 urtegeaz C.D. Zornotzan hasi nintzan. Honek ofizialtasun puntu bat emon eutsan nagusiekaz batera entrenetan gendualako eta formaltasun bategaz egiten ziralakoz gauzak. Atzean geratu ziran eskola garaiak eta jolasak.

Holan, alebin mailatik, beterrano mailarainoko ibilbidea egin neban, 2018an, semiprofesional nintzala erretiroa hartzea ebatzi neban arte. Nire atletismo ibilbide osoan, gehien gustau jatana krosa izan da, eta horretan egin dodaz lorpenik onenak: Bizkaiko txapelduna 9 aldiz jarraian izan naz; Euskadiko txapelduna 5 aldiz; Espainiako txapelduna eta Europa mailan zidarra lortuta.

2017an, oztopo lasterketak egiten hasi nintzan eta proba honetan emaitza oso onak euki



nebazan: Bizkaiko eta Euskadiko txapelduna 7 aldiz, Espainiako txapelduna, eta mundu mailan zidarra. Kontuan eukita oztopo lasterketak egiteko txiki-txikitatik hasten dirala lasterkariak teknika landuten eta ni 35 urtegeaz hasi nintzala, ez dagoz bape be txarto izandako emaitzak.

2015ean, Gu Be Bai Runners proiektua ipin zenduan martxan Bizkaiko hainbat herritan. Zeintzuk ziran herri horreek?

2015ean Igorren, Lemoan, Iurretan eta Galdakaon martxan jarri neban, 2014an Amorebieta-Etxanon, nire herrian, hasitako egitasmoa.

Zergaitik sortu zan eta ze helburuz?

Egitasmo honen helburua andrei kirol bultzadatxo bat emotea zan. Kirolari esker alor asko landuten diralako: fisikoa, mentala...

Nire bizitzan, ikasketak, lana, oposaketak eta atletismoa beti egon dira buztartuta eta gauza honek guztiak ondo eroateko ordu desbardinatan entrenau behar izan dot. Horrek emon eustan hainbat herritako andren kirol joerak aztertzeako eta behatzeko aukerea.

"Nire atletismo ibilbide osoan, gehien gustau jatana krosa izan da, eta horretan egin dodaz lorpenik onenak: Bizkaiko txapelduna 9 aldiz jarraian izan naz; Euskadiko txapelduna 5 aldiz; Espainiako txapelduna eta Europa mailan zidarra lortuta"

Gaztea nintzanean beti esaten neutsan aitari: "aita ez dakit zelan baina nik lagundu behar deutset beste andra batzuei honetan hasten, kirol honek onura piloak ekarten ditu eta hori sentiduteko aukerea emon gura deutset".

Oso argi neukan kirolagaz laguntzeko aukerea neukala, baina ez neban topatzen abagunea. Izan be, ikasle eta langile izanda, eta atletismoagaz batera, denpora libre gitxi geratzen jatan beste gauza batzuk egin ahal izateko. Ha-ta guzti be, 2014an, herrian, Zornotzan, egitasmoari formea emotea lortu neban eta kaleratu egin neban.

Eta ez naz inoz damutu; konziente naz andrak izan dodan harremanaz eta "hondar-ale txiki bat" ipini dodala betiko euren bizitzetan. Hori da niretzat, garai-penik onena.

Arratiako kasuan zelan sortu ziran taldeok? Ze papel jokatu eben Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Igorreko eta Lemoako Udalek?

Arratia mailan, orduko AUMko Bardintasun teknikaria, Miren Urresti, Zornotzan taldea martxan ipini nebala jakinda, ipini zan ni-

gaz hartu-emonetan eta ea Igorren holango talde bat martxan ipintea posiblea zan komentau eustan. Urte haretan nahiko lanpetuta nengoan. Lanaz eta entrenamentuez gainera oposaketak prestatzen be banenbilalako, baina sano idea polita iruditu jatan eta aurrera egin neban. Urte berean, Lemoan beste talde bat martxan ipintea be eskaini eusten eta baiezkoa emon neban.

Taldeetako partaidek ze perfil eukien? Herri guztietan bardina zan perfil hori ala herri bakotzak baeukazan bere ezaugarriak?

Taldean parte hartu daben andren perfila nahiko antzekoa izan da beti. Ez dakit zergaitik, baina askok irakasle edo osasun munduan egiten dabe lan; erizainak batez be.

Hizkuntzeari jagokonean, Arratiako taldeen kasuan behintzat, hasikeratik, euskeraz egiten dan jarduera bat da; aisialdian euskeraz egiteko beste aukera bat. Beste herrietan be holan izan da? Hau da, apropos bilatuta dago ala herri bakotzeko taldeak ebazten dau zein hizkuntzatan gura dauan egin?

Egitasmoa martxan jarri nebanean egia da ez nebala apropos egin, baina euskerea nire hizkuntza danez holan hastea ebatzi neban, eta egia da herri guztietan euskerea izan dala gure hizkuntza. Lemoan Berbalagun taldea be izan ginan urte baten!

Egitasmo honek batzean ditu niri gehien gustetan jatazan esparruak: kirola, emakumea, euskerea, eta jenteari lagundutea.

Zelan egiten zenduan lan, maila desbardinatiko korrikariei bakotzak behar ebana emoteko? Kontau zelan izaten ziran klaseak.

Taldeak martxan ipinten nebazanean, lehenengokoa, partaideen maila jakitea zan. Izan be, nahiz eta 15 andra egon talde bako-txean, zeregina bakotxari egokitzen neutsan, kontuan izanda bere maila, egoera fisikoa, baldintzak, lesinoak eta abar. Idea bat egite-



ko eurei galdetuten neutsen eta horren arabera, taldeak, mailak eta zereginak zehaztu. Nahiz eta talde ekintza bat izan, oso personalizata dago.

Noz arte egon zinan? Gero be mantenidu egin dira taldeak baina entrenatzaile barik eta kontuan izanda, oin andrak urtetan dirala galapan egitera bakarrik be, taldeak txikiagoak dira. Gaur egun ze herritan manteniduten dira GBBR taldeak?

Bost talde neukazan, baina 2020ko konfinamentuak egoera oso kritiko bihurtu eban eta honek inflexino puntu bat markau eban egitasmo honetan. Ordurarte, Amorebieta, Igorre, lurreta, Galdakao eta Lemoako taldeak neukazan, eta 2019an, ama izan arren, taldeak mantenidu nebazan. Baina 2020an konfinamentuak, bildurrak, arriskuak... zoritxarrez, talde batzuen desagerpena ekarri eban. Ha-ta guzti be, Arratian, 2023ra arte egon nintzan GBBR taldeak entrenetan. Ostean euren kabuz jarraitu dabe talde batzuek; eta Igorre eta Lemoako taldeak aktibo dagoz oindino.

Hamar urte honeetan eta talde guztiak kontuan hartuta, esango neuke ehun andra baino gehiagok parte hartu izan dabela GBBR taldeetan momentu baten edo bestean. Bakotxak bere historia eta helburuak daukaz edo euki dauz parte hartzeako: galapan egiteko zaletasuna, osasun kontuak, norberaren denpora propioa eukitea, beste andra batzukaz ondo pasetea, amodiozko penak gaitzitea... Badago gogoan daukazun istorioren bat bereziki gustetan jatzuna?

Ehun baino gehiago izan dira bai,

duda barik. Egitasmoa martxan ipini nebanean ez neban pentsetan euki dauan arrakastea eukiko ebanik. Gainera, aitatu behar dot konziente nazala andra horreen bizitzetan gogorapen politak itxi dodazala, baina akaso eurek ez dakiena da nire bizitzaren parte izan dirala eta dirala.

Istorio asko eta asko dodaz bereziak, partaide bakotxa berezia dalako; bakotxak bere helburu personala dauka eta hor euki nabe ni helburu hori lortzean lagunduteko. Baina kasu bat aitatu behar badot neurea izango da.

Nik egitasmo hau martxan ipini neban besteei lagunduteko asmoagaz, kirolean neukan eskarmentua eskainiz. Baina begiratu zelangoa dan bizitza! Nire momentu gatxenetan, eurek, nire neskek lagundu nabe ni. Azkenean eurek harremana egiten dozu, oso gertukoak gara eta astean egun bi alkarregaz egoteak loturea sortzean dau. Azkenengo urteak oso gogorrak izan ziran, amatasun gogorra, alabea sasoia baino lehen jaio zalako, OPEa, osasun arazoak gertuko senideetan... Eta gauza honek guztiak hobeto eroan dodaz taldeetan sortutako giroari esker, nire neskei esker, euren aholku, laguntasun eta gertutasunari esker eta ez daukat barbarik eskertzeko. Azkenean nik beti esan dot egitasmo honek gorputzari eta buruari egiten deusala on.

Manteniduten dozu kontakturik taldeokaz edo talderen batez?

Talde bakotxeko andra bakotxa oso garrantzitsua izan da niretzat. Dakidan ondoen zaintzen, laguntzen eta irakasten saiatu naz. Niretzat altxorra izan dira eta pena itzela emoten deusta ez jarraitutea baina nire egoera be aldatu egin da: konfinamentuaren ondorioak, alaba txikia eta

behar barriak, familian osasun arazoak egon dirala... Baina egia da, asko botaten dodala faltan eta buruan daukadan gauza pendiente bat dala. Eta badakit, ez dakit noz, baina bueltauko nazala, asko gustetan eta beteten nauan gauza bat dalako.

Gizartea aldatu da eta irakasle barik taldeok ez dira hain erakargarri. Ze etorkizun ikusten deutsezu oindino manteniduten diran taldeei?

Talde honek sortzea eta martxan ipintea, nire familiarik kanpoko jentearentzat bizitzan egin dodan gauzarik politena da. Martxan ipini

nebazanean ez neban ezer espero, baina urteak igarota eta ikusita zenbat andrak hartu daben parte, euren arteko harremanak sortu dirala eta euren artean gelditzen dirala galapan alkarregaz egiten jarraituteko... Hori niretzat bizitzak emondako opari bat da. Oin bizitzaren "kit-kat" baten nago, lanean eta kirolean. 2024an gaixotasun gogorra euki gendun familian eta honek bizitza momentu honetan beste modu batean hartzean eroan nau: estres barik, autozaintza landuten eta nire familiaz gozatu ten. Eta horretan murgilduta nago oin. Konziente naz epe bat dala, ez dala betiko eta egunen baten barriro martxan ipintea gustauko jatan. Ez dakit ez noz, ez zelana. Ez da izan agur bat, laster arte baino! Argi daukat holango egitasmoei jarraipena emon behar jakiela, andra asko bultzadaxo baten faltan dagoz-ta. Eta honek, osasun fisikoan zein burukoan onura asko dakar, zaintza prozesu bat da.

Aprobetxau gura dot eskerrak emoteko nigaz 10 urte honek partekatu dituen andrei. Sortu doguzan taldeak ez dira kirol taldeak bakarrik, bihotz oneko andra kirolarien taldeak dira; alkarri lagunduteko eta animetako beti prest egoten diranak.

Kirolak daukan gauza on bat da personak asko batzean dituala, sufrimentuak asko lotzean dau, eta harremanak oso sanoak izaten dira. Eta harreman horrek sortzea lortu dogu gure taldeetan bikain batez.



"2015ean Igorren, Lemoan, lurretan eta Galdakaon martxan jarri neban, 2014an Amorebieta-Etxanon, nire herrian, hasitako GBBR egitasmoa"

MENDIA



Eneko Garamendi eta Alex Txikon.

Alex Txikon etxean da

Katmandun ebakuntza egin ondoren, urtailaren 10ean itzuli zan etxera Alex Txikon alpinista lemoaztarra eta ez deutso Annapurnearen neguko erronkeari aurre egingo.

Erredakzioa

Abenduaren 27an, Annapurnako Oinarriko Kanpalekura iristeko ordu bat baino gehixeago falta zanean, apendizitis larri batek eragindako ondoez gogor baten ondorioz Katmandura ebakua behar izan eben. Ezbehar horren ondorioz bertan behera itxi behar izan dau negu astronomikoan Annapurnako gailurrera (8.091 metro) heltzeako asmoa. "Min handia sentidu neban, inoz sentidu ez dodan legez, eta hain leku isolatuan nengoanez, egoerak bildurtu egin ninduan", adierazo eban Txikonek bueltan. Taldearen esku-hartze azkarrari esker, Katmanduko ospitalera eroan, eta apendizitis larriaren diagnostikoa baieztatu eben medikuek.

Ebakuntzea ondo atera zan, baina medikuek gitxienez hiru aste sendatze-aldia gomendatu eutsien, eta horrek ezinezkoa egingen eban aurreikusitako datetan espedizinoagaz jarraitutea.

Txikonek eskerrak emon gura izan deutsez egun honeetan babesa emon deutesnei. "Eskerrak emon gura deutset Katmanduko mediku taldeari, espedizinoak kideei eta, distantziatik, animo mezuak bidali deusten persona guztiei. Komunitadea mendizaleatasunean eta bizitzan zein garrantzitsua dan gogorazoteko dira maitasun adierazpen honek" azaldu eban.

Proiektu handinahiaren etena

#OdysseyAnnapurna25 espedizinoaren erroka bat zan Txikonen zatit, baina baita neguko mendizaleatasunerako ekarpen bat be. Bere asmoa igoera negu astronomikoan egitea zan, eta garai horretan -40 gradura jaitsi daitekezan muturreko tenperaturak eta aurrez jakin ezin diran baldintza meteorologikoak izaten dira nagusi. "Muga fisikoak gainditzeaz gainera, mendiagaz modu puru eta benetakoan konektetea eskatzen eban erroka bat zan proiektu hau. Baina, osasuna guztiaren gainetik dago, eta garrantzitsuenak etxera itzultzeko ondo egoitea da" dino lemoaztarrek.

Txikon, neguan Simone Moro eta Ali Sadpara gaz batera 2016an Nanga Parbatera eta Manaslura egindako igoerengaitik nabarmendu da. Alpinismo jasagarri eta etikoan daukan ikuspegiak, estilo alpinoaren lehenetsi eta oxigeno gehigarriaren erabilera murriztutuen daukan, mendizaleatasun modernoaren erreferente bihurtu dabe. "Mendiko proiektuak ez dira bakarrik lortutako gailurrei buruzkoak, baizik eta ikaskuntzeari eta bizitako esperientziei buruzkoak be. Idea barriakaz itzuliko naz, eta Himalaiako neguaren mugak esploratuko grina beragaz", esan eban. Oin bere errekupezazioan ipiniko dau arretea.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A taldea igoteko promozinoa jokatzeko postuetan dago

Andrazkoen Arratia A eta B taldeek eta Lemoako Harrobik euren partiduak irabazi ebezan atzen jardunaldian, gizonzkoen Arratia Ak eta Bk ostera bardindu.

Datorren zapatuan Lemoako Harrobi eta Arratia Bren arteko derbia jokatu da.



Andrazkoen Arratia B eta Ibaiondo Nerbioi A taldeen arteko partida.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak ia hilebeteko atsedenaren ostean hilaren 11n jokatu eban etxetik kanpo Berriozar talde nafarraren kontra eta 2-3 irabazi eban. Lehen zatia oso ondo hasi eban eta Itsaso Kumik sartutako 0 eta Teko golagaz aurrea hartu eban, baina gauzak okertu jakiezan gero eta lehen zatia amaitu orduko etxekoek buelta emon eutsien markagailuari. Bigarren zatian ostera oso ondo ibili zan Arratia, Irune Egigurenek bardinketearen gola egin eban eta Kumik bi eta hirukoa. 16 jardunaldien ostean 33 puntu ditu Arratiak eta hirugarren postuan dago, igoteko promozino postuetan. Datorren partida Urbietan jokatu da, bigarren itzuliko lehena, Oyonesa talde arabarraren kontra hilaren 18an, arrastiko 17:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 12an jokatu eban eta 4-1 irabazi eban Ibaiondo Nerbioi A taldearen kontra. Lau golak bigarren zatian heldu ziran eta Alaitz Zelestinok sartu eban. Dimoztarra pitxitxia da eta 16 gol sartu ditu denporaldi honetan. Aurreko jardunaldian, hilaren 5ean jokatu partiduak, 1-5 irabazi eban Igorreko taldeak Arizen kontra. 12 jardunaldien ostean 24 puntu ditu Arratia Bk eta hirugarren postuan dago. Datorren partida etxetik kanpo jokatu da bere ostetik puntu bakarrera daukan Indartsu taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 19:30ean.

Gizonzkoen Arratia A taldeak

hilaren 11n jokatu eban Urbietan Iturrigorri A taldearen kontra eta bana bardindu eban. Kanpotarrek hartu eban aurrea markagailuan 73. minutuan baina Xabier Orbe igorretarrak bardinketearen gola sartu eban 82. minutuan. Aurreko partiduak, hilaren 5ean jokatuak, bana bardindu eban etxetik kanpo Gernika Sporting A taldearen kontra. 16 jardunaldien ostean 27 puntu ditu Arratia Ak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partida etxetik kanpo jokatu da Basurto A taldearen kontra hilaren 19an, goizeko 11:30ean.

Gizonzkoen Arratia B taldeak hilaren 11n jokatu eban etxean Orozkoko Atxulaur A taldearen kontra eta bana bardindu eban. Kanpotarrek lehen zati amaieran aurreratu ziran baina 71. minutuan heldu zan Jokin Goti zeanuriztarraren bardinketearen gola. Aurreko partiduak Montefuerte A taldearen kontra jokatu eban Arratia Bk hilaren 4an eta 1-0 galdu eban aurkariek atzen

minutuan sartutako gol bateri esker. 16 jardunaldien ostean 21 puntu ditu Arratia Bk eta hamargarren postuan dago sailkapenean. Datorren partiduak derbi arratiarra ikusi ahal izango da, Arlonagusian jokatu dau-ta Lemoako Harrobiren kontra hilaren 18an, arrastiko 17:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik hilaren 11n jokatu eban etxetik kanpo Etxebarri A taldearen kontra eta 0-1 irabazi eban 89. minutuan Aimar Larrea lemoaztarrek sartutako golari esker. Aurreko partiduak hilaren 4an jokatu eban Lemoako taldeak Orozkon eta 2-1 galdu eban Atxulaur taldearen kontra. 16 jardunaldien ostean 17 puntu ditu Lemoako taldeak eta hamalagarren postuan dago sailkapenean. Datorren astegoienean derbia ikusteko aukerea izango da Arlonagusian; Lemoako Harrobik Arratia B taldearen kontra jokatu dau-ta hilaren 18an, arrastiko 17:00etan.



2024ko gizonzkoen Arratia A eta Zaldia Aren arteko partida.

PELOTEA

Aldai-Zabala bikoteak aurrera egin dau Garai-Mendizabal bikoteari irabazi ostean

Erredakzioa

Urtailaren 11n Larrabetzun jokatu zan Emakume Master Cup zirkuituko Eskuz Binakako Txapelketa Nagusiko bigarren jardunaldia. Amaia Aldai eta Irati Zabala Leire Garai eta Nora Mendizabaleri nagusitu jakien 22-14.

Partidua garrantzi handikoa zan dimoztarra eta bere bikotearentzat. Izan be, aurreko partidua galdu egin eben lehenengo jar-

dunaldian eta Larrabetzuko ira-bazi behar eben aurrera segidu ahal izateko.

Emakume Master Cup Eskuz Binakakoa

Txapelketan 90 pelotari dabiz; maila gorenean 16, zortzi bikotetan antolatuta. Talde bitan banandutako ligaxka fasea dago oin jokoan eta gero beste ligaxka bat jokatuko da talde bakotxeko bikote bi onenakaz. Hor ebatziko dira finalerdiak.



ZIKLO-KROSA

Urtekerako istripu batek Espainiako Ziklo-kros Txapelketea zapuztu eutsan Manu Quintanillari

Erredakzioa

Denporaldi bikaina eginda faboritoenetakoa zan Igorreko ziklo-krosleria Master 50 kategorian Espainiako Txapelketea irabazteko. Izan be, sailkapen orokorrean hirugarren egoan. Baina urtailaren 12an As Pontesen jokatutako lasterketa hasieran, txirindulari ugari jausi ziran, Quintanilla tartean, eta ondorioz hamaikagarren postuan geratu zan.

Lasterketa hasieran jausi zan

txirindulari bat eta honen kontra joan ziran hamar bat txirindulari, Quintanilla tartean. Altxetarakoan, Igorrekoak ez eban bere bizikletea topetan eta hau hartutakoan, eskulekua arteztu, katea ipini eta zapatilak kanbiau behar izan eban. Holan, atzenetarikoa geratu zan Quintanilla. "Desastre bat izan zan" adierazo eban. Halanda be, "belaunean min hartuta eta motibazio gutxiarekin", aurrera egin eban gitxinaka-gitxinaka, hamaikagarren amaituta.



PELOTEA

Xabi Rekalde pelotari promeseak bederatzi txapel jantzi ditu 2024an



21 urteko pelotari dimoztarra ASPEgaz entrenetan hasi da: "Asko ikasten da eta espero dot hobetuten jarraitzea, oso gustura nago".

Erredakzioa

Txumulueta klub dimoztarreko pelotaria dan Xabier Rekaldek bederatzi txapel, banaka zein binaka, jantzi eban 2024an. Atzenaldian asko nabarmendu da promesea frontoietan eta ASPE enpresearen arretarekin bereganatu dau eta eurakaz entrenetan be hasi da. Profesionalakaz entrenetatik jokatutera salto handia dago baina buruan dauka Rekaldek helmugea: "Ume guztion ametsa da profesioalera ailegetea eta egunen baten heltzean bada, pozik hartuko dot aukera hori".

Rekalde "berandu" hasi zan

pelotan, berarentzat "oso klub familiarra" dan Txumulueta: "Esango neuke hasieran ez nintzala nabarmenduten danetarikoa. Gehiago kostatu jata baina lan eta esfortzuagaz, banabil emaitzak lortzean". Askoren moduan, kirolagaz lehen kontaktua futbologaz izan eban Rekaldek baina Diman dagoan peloteaganako zaletasunak markea itxi eutsan: "Etxean Danel eta Lander Elezkano edo Ekhi Ziarrusta moduko figura handiak daukaguz eta eurei jarraituta hasi nintzan pelotan".

Figura honei jarraituta eta gogor entrenetan urteak emon

ostean, "2024an aurrerapausu handia" emon dau Rekaldek, bederatzi txapel pilatu dauzalarik. Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketako 1. Mailako eskuz banakakoa, GRABNI Txapelketako 22 urtez azpiko eskuz banakakoa, Zornotzako IX. Master Kaiolako 22 urtez azpikoa, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako nagusien eskuz banakakoa, Zizurkilgo IV. Lau Eta Erdiko Intxaur Txapelketea, Antiguako LXXVI. Pilota Txapelketako promesen mailako eskuz binakakoa, Oñatiko 41. San Migel Txapelketako nagusien eskuz binakakoa, Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketako nagusien eskuz binakakoa eta "danetatik bereziena" dan Euskal Herriko 4 1/2ko Elite Txapelketea dira igaz irabazi zituan txapelak, hurrengoz hurrengo.

Euskal Selekzioaren ofizialtasuna

Urte amaieran, Nazioarteko Pilota Federazioak Euskal Selekzioaren ofizialtasunaren alde bozkatu eban eta Madrilen baiezkoaren faltan, hurbilago dago Euskal Selekzioak txapelketa ofizialetan jokatutako aukerea. Xabi Rekaldek esan deuskunez, udan jokatu zan Munduko Txapelketan espainiar selekzioagaz jokatutea opatu eutsien baina beste batzuek bate-ra, uko egin eutsan eskaintzeari. "Guretzako oso barri polita da gure selekzioagaz jokatu ahal izatea, ilusino handia egingo eustan eta bertan egoten saiatuko naz", adierazo dau Rekaldek.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrek taldea zazpigarren postuan mantenduten da

Erredakzioa

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek taldeak ligako sailkapenean aurrera egiteko aukerea izan eban urtailaren 11n, baina Gesalaga Okelan Gipuzkoa Sortzen taldearen kontrako partiduan 33-22 galdu eban. Arratiarren gaitetik dagoan Gaztedi taldeak be galdu eban bederatzigarren jardunaldian baina zekorrek Lasartetik puntu barik bueltatu ziranez, bosgarren postura salto egiteko aukerea galdu dabe. Puntuak lortzeako aukera on bat izango dabe hurrengo jardunaldian, etxetik kanpo Uribealde Mungia

taldearen kontra, sailkapeneko atzena.

Ekaitz Duñabeitia zekorren entrenatzaileak kontau dauanez, arratiarrak aurretik ibili ziran Gesalaga Okelan Gipuzkoa Sortzen taldearen kontrako partido gehienean zehar. Izan be, 54. minutura arte, estu-estu baina zekorrek aurretik ibili ziran, alde txikiagaz edo bardinduta izan bazan be. Ander Bilbao, Unai Zuazo, Gorka Alonso eta Zumel Iturratek lortu ebezan zekorrenzako puntuak. Halanda be, hamabost jokalaririk bakarrik bertaratu ziran eta batek min hartuta, bat gitxiagaz geratu ziran arratiarrak. Holan,

atzenean aurkariak aurrea hartu eta garaipena lortu eben, 33-22 amaituta.



BERTSO-SAIOA


Ibarzabal, Arzallus,
Colina, Maia eta Lujanbio
izango dira Zeanuriko
bertso-saioan

Erredakzioa

Urtailaren 19an izango da, 18:00etan, Zeanuriko frontoian, urtero inguruko bertsozaleak batzean dituan zita hau. Sarre-
rak egunean bertan salduko dira frontoian arrastiko 17:00etatik aurrera.

Zeanuriko Bertso Eskoleak antolatuten dauan bertso jaialdi honek 20 urte bete ebazan igaz eta aurten be, hamarkada bitan urtero egin dauan legez,

momentuko bertsolariarik onenetakoak ekarriko ditu saiora. 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Maialen Lujanbio txapeldunak, Amets Arzallus txapeldunordeak, Sustrai Colina finalisteak, Nerea Ibarzabal finalista eta 2023ko Bizkaiko txapeldunak eta Jon Maia ibilbide luzeko bertsolari eta letragileak osotuten dabe aurtengo kartela. Gai-emoile lanetan Eñaut Intxaurraga Zeanuriko Bertso Eskolako irakasleak jardungo dau.



Artxiboko irudia.

IPUIN KONTAKETEA

Helduentzako ipuin
kontaketea Kotxepin
Lemoako Kultur Etxean

Erredakzioa

Hilaren 29an, 18:30ean, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, *Zaharrak berri*, gazte eta nagusientzako ipuin kontaketea saioa eskaintzeko.

Umeentzako kale antzerkia egin eta ostean hasi zan Agirresarobe helduentzako aretoko antzerkia egiten. 30 urte baino

gehiago daroaz ipuin kontalari eta edade guztietarako emonaldiak egiten ditu, umorea, umore baltza be bai, erabiliz. "Zuzeneko kontaketea biziak daukadaz. Publikoa kontuan hartzean dot eta neuk bilatzen dot euren parte hartzea. Ahozko tradizionotik jasotako ipuinak dodaz gustukoen eta saioak berba joko eta asmakizunak osotuten dodaz" dino ipuin kontalariak.



KONTZERTUAK

Oi! musikearen jaialdia Kiñu Gaztetxean

Aurten be, Urte barri oi! izenpean kontzertua antolatu dabe Igorreko Kiñu Gaztetxean, urtailaren 18rako.

Arrastiko 16:30ean zabladuko dabez ateak eta Oi! musikea egiten daben zazpi taldek joko dabe: Estutu, Perlata, Arene 6, Galazota, Streetwise, Neskatasuna eta Azken Sustraiak, hain zuzen be.

Erredakzioa

Dagozan sarrera apurak 14 euroan erosi ahal izango dira Gaztetxean egunean bertan. Bezperan, 19:30ean, *Punkaren beste alde* filma ikusteko aukerea egongo da.

Oi! skinhead musika estiloa da, punk musikearen eboluzionotik sortu zana. 1970eko hamarkadan punk musikeagaz bat ez etozan skinheadek, streetpunk-a sortu eben, gaur egungo Oi!-aren aurrekaria.

Taldeak

Estutu taldea, 2018an, Elorrion hasitako proiektua da. Bere hasitapenetan boskote moduan aurkeztu zan arren, gaur egun lau partaidek osotzen dabe taldea, Mario (bateria), Andoni (bajua), Andu (gitarra) eta Aimar (ahotsa). 2021. urtean kaleratu eben lehen lana, *Errebelia hasi da* izenekoa, punk oi eta punk rock doinuek osotutako diskoa. 2024an *Gure hautua* izenekoa grabau eben Aitor Ariñoren eskutik Lorentzo Recordsen. Tartean, beste hainbat abesti solte azaleratu ditue, proiektu desbardinetan parte hartuz.

Perlata taldea, 2015ean sortu zan Arrasaten. Maialen, Ane, Jaio eta Txerrak osotuten dabe gaur egun Perlata, eta KuirPunk moduan aldarrikatzen dabe egiten daben musikea. Musika talde bat baino gehiago, sorkuntza espazio moduan definitzen dira. Musika zuzena, kritika sozialak eta letra gordinak nahasten ditue, inguruan daukien errealidadeari eta errealidadetik sortuz. Etenik bako gerran kokatzen dira normaren kontra, normaltasunak apurtu eta eraldatzeko helburuagaz.

Arene 6 Punk Oi! musika taldea 2019an sortu zan Algortan, Erasoka taldeak joteari itxi eutsanean. Ibonek (ahotsa) eta Iñakik (bateria) musikan jarraitzeko gogoak eukien, eta proiektu hau sortzea ebatzi eben. Gitarra-jole bi Jokin (Smoking Barrels) eta Jon; eta baju-jole bat Koldo, (Garrasika) gehitu ziran taldera gero. Taldeak disko luze bat argitaratu dau *Errautsetatik* (2022) eta EP bi ditu kalean. Baita hainbat *single* be.

Galazota talde arratiarrak be joko dau Urte barri oi! jaialdian. Ai-

tor Yurrebaso arantzazuarrak, Oier Barrenetxea eta Mikel Zarrabe igorretarrek, Jon Pelaez dimoztarrak eta Mikel Egiluz galdakao-zeanuriztarrak osotuten dabe taldea. 2021ean argitaratu eben *Etzera!* lehen kantua eta 2022an hasi ziran oholtzetara igoten. 2024an, *Heldu orduko usteldu* sei kantuk osotutako EPa kaleratu eben.

Streetwise taldea 2017an sortu zan Iruñean eta 2019an kaleratu eban bere lehenengo diskoa 11 kantugaz. Ibon (ahotsa), Adri (bajua eta korduak), Jon (bateria eta korduak) eta Aritz (gitarra) dira taldea osotuten daben musikariak. Arene 6 taldeagaz batera, *Split 12"* kantu biko albuma kaleratu eben 2023an.

Iratxek, Luciak, Kolorinek eta Kamik osotuten dabe Azkoiengo (Nafarroa) Neskatasuna taldea. 2022an sortu zan *Ager Vasconum* bere lehenengo lanagaz. Igaz, *Cicatrices del futuro* lana kaleratu eben. Albumak, estudioan grabatutako 10 kantu ditu.

Beasaingo Azken Sustraiak

punk-Oi! eta punk-rock taldea 2017an sortu zan Xabi (gitarra), Mendilu (bajua), Unai (bateria) eta Agirrerren (ahotsa) eskutik. Lau disko ditu kalean: *Azal berri bat* (2017), *Utopian gara aske* (2019), *Fza Bol. 1-6* (2021) eta *Goierri* (2023).

Punkaren beste alde

Bezperan, Jaione Martinez Saez de Maturana, Ane Garai Arrieta eta Maialen Oleaga Perlata taldeko kideek idatzi eta zuzendutako filma, *Punkaren beste alde* ikusteko aukerea izango da. Dokumental biografikoa da, Arrasateko Jesusi Etxebarriaren bizitza eta harek Arrasateko musika eszenari egindako ekarpena kontetan dauana. 50 urtez ibili zan musikako klaseak emoten; musika hezkuntza, pianoa, gitarra, bajua... erakutsi izan dau 70 urtegar jubilau zan arte. Perlata musika taldeko kideen irakaslea izan zan. "Punkak ez dau mugez eta patroi sozialez ulertzen eta Jesusik hala erakusten dau. Musikea pasinoia da eta norbere bidea bakarra eta autentikoa".



MAGIA

Magia ikuskizuna eskainiko dau Eriz magoak Lemoan

Erredakzioa

Urtailaren 25ean, 18:30ean, *Begizur* ikuskizuna eskainiko dau Eriz magoak Kotxepin Kultur Etxean. Ikuskizuna 5 urtetik gorako umeentzat dago gomendatuta.

Ilusionismo ikuskizunetan, nora begiratu izaten da kakoa, publikoaren begiradea bideratu behar dau magoak. "Begiradea begien bitartez egiten da eta mago ikustera bazoaz begizur egon behar dozu" dino magoak ikuskizunaren aurkezpen moduan.

Eriz Marquesek, Eriz magoak, 20 urte baino gehiago daroaz magia eta umorearen profesional moduan ume eta helduentzako ikuskizunak egiten.



LITERATUREA

Harkaitz Cano eta Gotzon Barandiaranegaz poema liburuen aurkezpena eta poesia irakurraldia Diman



Harkaitz Cano

Erredakzioa

Hilaren 30ean, egongo dira idazle biak Dimako Liburutegian. Harkaitz Canok, *Ulu egiteko bolondres bila* (Susa, 2023) eta Gotzon Barandiaranek *Galbahea* (Susa, 2024) poema liburua aurkeztu, batak bestearen liburua iruzkindu eta hurreratutakoak solasaldia egingo dabe. Liburu biotako poemak irakurriko ditue, bakotxak bereak, zein batak bestearenak.

Canoren *Ulu egiteko bolondres bila* liburuan, poesiari buruz hausnartzen dau egileak, poe-mearen muga formalak ikertuz. "Zerk bereizten dau ulu bat otoitz batetik? Eta otoitz bat poema batetik? Izatez, ba ete da poema ez dan zerrendarik? Lapurtutako testuei forma aldatzea nahikoa da testu baten jabetzea geureganatzeko? Ekarrri ete leiteke poema liburu batera Oteizaren Klarion laborategia proiektua?" galdera horreei jarraituz osotu dauz egileak poemarioko atalak.

Galbahea poemarioa barriz, "berben zentzua eta bizitzaren zantzua" berreskuratzeko idatzi dau Barandiaranek. "Maitasunaz egiten dau berba, bere belaunaldiaz, alkarbizitzarako baldintzez, baina baita hildako deserosoz, isilean errepikatutakoez eta harapatutako kultura baten nekeez be. Memoria da ardatzeko gaia eta amaren heriotzek be zeharkatzen dau liburua".

IKUSKIZUNA

Toti Martinez de Lezea, Gorka Hermosa eta Edurne Zabaloren ikuskizuna Lemoan



Edurne Zabalo, Gorka Hermosa eta Toti Martinez de Lezea.

Erredakzioa

Urtailaren 17an, 20:00etan, *Sorginak eta sorginkeriak* ikuskizuna dakarre Lemoako Kotxepin Kultur Etxera. Gorka Hermosak (akordeioa) eta Edurne Zabalok (klarinetea) musikaz lagunduko dabez Toti Martinez de Lezearen testuak.

Toti Martinez de Lezeak, sorginen gaineko bere jakintza ipiniko dau ikuskizunean, eta musikaz

lagunduta "zer ziran, edo hobeto esanda, zer ez ziran" azalduko dau. Landareak, akelarrea, kon-dairak... baliatuz, "andrak gure historian zer izan diran kontatuko dau, eta zer izango diran". Testuok Gorka Hermosak konposatutako musikeagaz lagunduta egongo dira, eta akordeoi-lariak berak, eta Edurne Zabalo klarinete joleak interpretauko dabe musika hori.

DUNBA

Miñan antzezlana

Abenduaren 12an, Igorreko Lasarte Aretora joan ginan Artedrama taldeak eginiko *Miñan* antzezlana ikustera. Lemoako DBH 4. mailako ikasleok 1. ebaluazinoan irakurri genduan liburua eta Igorreko ikasleak batera antzezlanaz gozatu genduan.

Uxue de la Torre Olabarria eta Iradi Fernandez Bilbao Lemoako IPIko ikasleak

Antzezlana hau Amets Arzallusek eskuz eta Ibrahim Baldek ahoz idatzitako *Miñan* liburuan oinarrituta dago. Liburu honetan, Ibrahimaren istorioa kontetan da.

Ibrahim Ginea Konakryn jaiotako mutil bat da. Familian 4 neba-arreba ziran eta aita hil ondoren Ibrahim etxeko gizona bihurtu zan. Bere anaia Alhassan-

nek etxetik alde egitean, Ibrahim bere bila joan zan, baina bidaia ez zan erraza izan. Afrikatik urte batzuk ibili zan Libiara heltzeako helburuagaz, baina bere bidea guztiz aldatu zan bat-batean, eta azkenean Ibrahimak zodiak bat hartu eban Europara ailegetako. Irunen Ibrahimak Amets Arzallus idazlea ezetu eban eta honek bere istorioa entzutean, liburu bat egitea merezi ebalu pentsau eban. Holan sortu zan eskoletan eta Euskal Herri mailan oso eza-



guna dan liburu hau.

Gure eretxian, antzezlana libu-

ruaren oso egokitzapen ona da, ikusteko polita eta hunkigarria.



Antzezlanean zehar, barrua nahastu jakun hainbat bider, baina merezidu dau ikusteak. Horrez gain, harritura geratu ginan azken eszenan zodiak bat simulau ebelako altzari eskas batzukaz eta haren gainean igon ziran. Eszena ederra izan zan.

Antzezlana amaitutakoan, aktoreak berba egiteko aukerea izan genduan. Aktoreek esan euskuen eurentzat ez dala erraza izan personaia honek antzezte, batez be, Ibrahim Balde-ren personaia egiten dauan aktorearentzat. Personaia baten papera egitean, personaia haren azalean sartzean zara eta norbere burua Ibrahimaren lekuan jartzea oso gogorra da.

Liburua irakurrita edo irakurri barik, antzezlana ikustea gomen-datzen deusuegu.

AGENDEA

**URTAILAK 16
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Bonodenda kanpainako bonoak erabilgarri urtailaren 19ra arte.

Hilaren 25 eta 26rako Aiko taldeak antolatutako jantza astegoienean izen-emotea zabalik dago. Mezua bialdu bulegoa@aikotaldea.eus helbidera edo whatsapp bidez 634 423 539 zenbakira, honako hau adierazoz: Dantza asteburua Areatzan, izen-abizenak, email helbidea eta harremanetarako telefonoa. Ikastaroaren prezioa 50 euro. 18 eta 30 urte bitartekoek debalde.

ARRATIA

Arratiako Berbalagun-en parte hartzeako, izena emanizena.praktikatu.eus webgunean, 662 199 033 whatsappen, arratia_berba@ae.eus helbidean edo Igorreko Kubulu euskaltegian emon daiteke.

Arratiako Koruak zezeilaren 4an dirua batzeako jentea behar dau. Prest egon ezkeru deitu 606 276 467 telefonora.

ARTEA

Zezeilaren 7a baino lehenago, 6 eta 8 urte bitarteko umeen familientzat Irakurketa Kluberako izena emon udaletxean.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Zezeilaren 14tik 16ra Baqueiran egingo dan eski urtekerarako izena emoteko atzen eguna.

Izen emotea zabalik martiaren 15ean jokatu dan Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako (24 km eta 16 km), mendi martxarako (16 km) eta umeen lasterketarako (3 km) Kolazino Mendi Egunaren webgunean.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera liburutegia zabalik.

Hilaren 23an izango dan Hitanoaren ikastaro praktikorako izen-emotea. Bertan ebatziko dira hurrengo saio eta orduak. Interesdunek emon izena abizarie@gmail.com helbidean.

Hilaren 27ra arte, zezeilaren 4an hasiko dan gazteentzako (12-18 urte) *Entrenamentu funtzionalerako* izen-emotea udaletxean. Saioak martitzenetan izango dira 17:00etan, eskolako aterpean. Prezioa, 10 euro hilean.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era. Publikoari arretea: astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 23an izango dan Pasta tailerrerako izen-emotea arratia_berbalagun@ae.eus helbidean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Maiatzaren 1era arte edo dorsalak amaitu arte, maiatzaren 31n jokatu da Ubidestro Trail 2025ean izen-emotea kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**URTAILAK 17
IGORRE**

19:30ean, *Punkaren beste alde* dokumentala Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

20:00etan, *Sorginak eta sorginkeriak* testu musikatuak. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

San Antonio eguna Barañon. 12:00etan, mezea; ostean, barauskarria.

**URTAILAK 18
IGORRE**

16:30ean, Urte barri oi! jaialdirako ate irekiera. Taldeak: Estutu, Perlata, Arene 6, Galazota, Streetwise, Neskatasuna eta Azken Sustraiak Kiñu Gaztetxean.

**URTAILAK 19
ARTEA**

13:30ean, Adri Garciaren kontzertua.

Animal Jane EParen aurkezpena. Herriko Bentan.

18:00etan, Jai Batzordea Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Klara eta hazi magikoen misterioa*; 19:30ean, *Emilia Perez* Lasarte Aretoran.

ZEANURI

18:00etan, bertso jaialdia frontoian. Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Jon Maia eta Maialen Lujanbio. Gai-emoilea: Eñaut Intxaurraga.

**URTAILAK 21
IGORRE**

19:00etan, berbalgia, *Aldaketa politikoak eta geopolitikoak*. Geopolitikaz Ikerketa Taldeko kide baten eskutik. Axular Herriko Tabernan.

**URTAILAK 23
DIMA**

18:00etan, Hitano ikastaro praktikoa Abaroan. Bertan ebatziko dira hurrengo saio eta orduak.

**IGORRE**

18:00etan, *Puntu* tailerra Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

18:30etik 19:30era, Berbalagun ekimenak antolatuta, *Pasta* tailerra Txaramelako lagunaren eskutik Gazteleguan.

**URTAILAK 24
IGORRE**

21:00etan, Bihotz taldearen kontzertua eta DJ Tibe Axular Herriko Tabernan.

**URTAILAK 25
IGORRE**

10:00etan, EH Bilduren Ibanduz indartutako lansaiola Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, Eriz magoaren *Begizur* ikuskizuna Kotxepin Kultur Etxean.

**URTAILAK 26
IGORRE**

17:00etan, zinea, *Sonic 3 la película*; 19:30ean, *¿Es el enemigo?* Lasarte Aretoran.

**URTAILAK 29
LEMOA**

18:30ean, Ixabel Agirresaroberen *Zaharrak berri* ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

**URTAILAK 30
DIMA**


19:00etan, Harkaitz Canoren *Ulu egiteko bolondres bila* eta Gotzon Barandiaranen *Galbahea* liburuen aurkezpena. Liburutegian.

IGORRE

18:00etan, *Puntu* tailerra Axular Herriko Tabernan.

**ZEZEILAK 1
AREATZA**

21:30ean, atea zabaldu. Adur eta Ganibet taldeen kontzertua Laminetxe Gaztetxean.

**Txotxongilo ikuskizuna Diman**

Urtailaren 17an, barikua, 18:00etan, Bariku txikiak, umeen aisialdian arte eszenikoak sartzeako ekimenak, Tenderete titeres taldearen *Basoko ipuin ttipiak* txotxongilo antzerkia dakar Abaroa Aretora.

Hiru urtetik aurrerako umeentzat dago gomendautu ikuskizuna eta istorio bi dakar. Lehenengoan, Zapa eta Zapo untxikumeak beti liskarretan dagoz. Egun baten Zapok izugarritzko sustua emongo deustu Zapari eta sustuagaitik Zapa hil egingo da. Ondoren, bere mamua basoan agertuko da Zaporen bila.

Beste istorioan, protagonistea Ondo Ibili aitita izango da. Bera ondoen munduan txapelduna da eta egunero basora joaten da perretxikoak, lanpernak eta zizak hartzera. Baina ondo honeek basoko Ogroaren askaria dira. Zer gertatuko da Ogroak Ondo Ibili harrapatzeko dauanean?



KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. *Online* klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

BASERRIA SALTZEAN DA

Zeberion 750 m²ko baserrietxea salduen da inguruan landa zabalagaz. Interesdunek deitu 609 457 016 telefonora.

LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

KAMARA FRIGORIFIKOA SALGAI

Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

LANA

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrek adin eta maila guztietako eskolak emoten ditu,

online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu: 610 863 369.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Esperientziadun andra euskalduna, umeak zaintzeako prest dago. Interesautu egotekotan, deitu 686 341 677 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamengaz ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusn irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

IRAKASLE BILA

LH 5. mailako ikasle bateri ingeleseko klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezua bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

begitu

Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako **Dolu bat eta dolu bi** liburuaren ale bana.

Nerea Goioaga (Igorre)
Idoia Alonso (Arantzazu)



2 Lemoako Kultur Etxeak emondako **bina sarrera Sorginak eta sorginkeriak** ikuskizunerako.

Josean Bengoetxea (Lemoa)
Iñigo Karide (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
1976
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

begitu
eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

begitu
eus



BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2025EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2025ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen duan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.



URRUN IRISTEKO, GERTU.

Zatoz eta ezagutu
Andramari
Zornotzako ikastola

- Oti 18 urtera arte.
- Garraio zerbitzua Arratiatik.



Larrea auzoa z/g 48340 Zornotza.
94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus

